

EAE-KO
ADMINISTRAZIO PUBLIKOAREN
ARTXIBO NAGUSIAREN
MEMORIA

2018

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAIA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

01/Giza baliabideak

Zerbitzuko arduraduna: 1
Arloko arduraduna: 1
Artxibozainak: 3
Artxibozain laguntzailea: 1
Administrazio-laguntzaileak: 2
Administrari laguntzailea: 1
Mandatarari mendekoa: 1

02/Instalazioak eta ekipamendua

Lakua II eraikina:

156 m²-ko hiru gordailu eta 312 m²-ko beste 6 gordailu, armairu konpaktuekin

Gamarra eraikina:

15 metroko altuerako 11 korridore robotizatu, bi robotek kudeatutako eta 6.011 m²-ko azalera hartzen duten 25.000 erretilu edukizailerekin.

Eraikin bietan funtzio anitzeko erreprodukzio-makinak daude (fotokopiagailuak, inprimagailuak eta digitalizagailuak), transpaletak eta dokumentu-kutxak garraiatzeko orgak.

Kontsulta-gelan mikroformak irakurgailu-erreproduzigailu bat, eta hari lotutako PC bat eta inprimagailuak daude; 3 PC, Windows 7 sistema eragilearekin eta AKS/SGA artxibo-kudeaketaren sistema informatikorako sarbidearekin.

Kale Nagusiko eraikina:

Gordailu bat, armairu konpaktuekin

Andia eraikina:

Gordailu bi, armairu konpaktuekin

03/ Dokumentu-kudeaketa

3.1. ARTXIBO NAGUSIAN UTZITAKO AGIRIAK


Gordailuan utzitakoen kopurua: **440**

Gordailuan utzitako kutxen kopurua, guztira: **32.532**

Ekoizlearen arabera banaketa

EKOIZLEA	GORDAILUAK	KUTXAK GUZTIRA	GUZTIAREN %
URAREN EUSKAL AGENTZIA	6	122	0,375
AHOLKU-BATZORDE JURIDIKOA	1	114	0,442
KULTURA ETA HIZKUNTZA-POLITIKA	27	314	0,965
EKONOMIAREN GARAPENA ETA AZPIEGITURAK	47	1.697	5,216
HEZKUNTZA	57	3.171	9,747
ELANKIDETZA	25	291	0,894
EMAKUNDE	2	11	0,033
ENPLEGUA ETA GIZARTE POLITIKAK	18	1.181	3,63
GOBERNANTZA PUBLIKOA ETA AUTOGOBERNUA	32	2.736	8,41
OGASUNA ETA EKONOMIA	34	2.969	9,126
IHOBE	20	1.138	3,498
IVAP	2	169	0,519
IZENPE	4	576	1,77
KONTSUMOBIDE	1	122	0,375
LANBIDE	11	10.055	30,915
LEHENDAKARITZA	1	17	0,052
INGURUMENA, LURRALDE PLANGINTZA ETA	56	2.336	7,18
ETXEBIZITZA	16	983	3,021
OSAKIDETZA	22	1.183	3,638
OSASUNA	16	908	2,791
SEGURTASUNA	12	205	0,63
SPRI	23	2.052	6,307
TURISMOA, MERKATARITZA ETA KONTSUMOA	2	19	0,058
WISESA	5	133	0,408
GUZTIRA	440	32.532	% 100

2011-2018 aldian utzitako kutxa kopurua



3.2. DOKUMENTU-XAHUKETAK

Artxibo Nagusian egindako zahuketen agirien kopurua: **52 kutxa**

Artxibo Nagusian guztira suntsitutako kutxen kopurua: **11.027 kutxa**

Bulegoko Artxiboan guztira suntsitutako kutxak: **375 kutxa**

Kendutako kutxen kopurua, guztira: **11.402 kutxa**

Artxibo Nagusiko xahuketak

Ekoizlearen arabera xehaturik

EKOIZLEA	XAHUKETAK	KUTXAK GUZTIRA
EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA	18	3.880
SPRI	1	63
OGASUN ETA EKONOMIA	1	250
TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO	2	415
GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU	1	50
LANBIDE	5	4.038
INGURUMENA, L. P. ETA ETXEBIZITZA	17	1.518
SEGURTASUNA	7	813
GUZTIRA	52	11.027

Bulegoko Artxiboko xahuketak

Ekoizleen arabera xehaturik

EKOIZLEA	XAHUKETAK	KUTXAK GUZTIRA
SEGURTASUNA	3	94
LANA ETA JUSTIZIA	1	281
GUZTIRA	4	375

3.3. ARTXIBO NAGUSIAREN HAZKUNDEA


2018ko bukaeran Artxibo Nagusian (Lakuan eta lurraldeetakoetan) metatutako hazkundera hau izan da:

Gordailuak, guztira: **840.506 kutxa**

Garbiketak, guztira: **218.928 kutxa**

Artxibo Nagusiko kutxak 2018ko abenduaren 31n: **621.578 kutxa**

ARTXIBOAREN HAZKUNDEA



3.4. GORDAILU ROBOTIZATUAREN ERAIKINA

Instalazioan guztira **25.979** metalezko erretilu daude, eta **623.469** kutxa zuri normalizatu sartzeko edukiera dauka.

2018-12-31n, instalazioan guztira **471.825** kutxa daude, beraz, okupazio osoaren % **75,67** hartzen dute. Dokumentuak zuri koloreko kutxetan eta marroi koloreko kutxetan gordetzen dira; hortaz, 106.579 kutxa zuri eta 10.503 kutxa marroi gordetzeko leku dago.

3.5. ARTXIBO NAGUSIAN GORDETAKO AGIRIETARAKO IRISPENA

Kuntsultak Artxibo Nagusian

Guztiko kuntsultak, **2018an: 7.831**


Ekoizleen eta irispen-sistemaren arabera xahaturik

EKOIZLEA	AKS-TIK KANPOKO KONTSULTAK	AKS-KO KONTSULTAK
URAREN EUSKAL AGENTZIA	35	506
ALOKABIDE	0	3
AHOLKU-BATZORDE JURIDIKOA	0	4
KULTURA ETA HIZKUNTZA-POLITIKA	11	49
EKONOMIAREN GARAPENA ETA AZPIEGITURAK	1.290	1.550
HEZKUNTZA	466	332
ELANKIDETZA	0	8
ENPLEGUA ETA GIZARTE POLITIKAK	3	31
GOBERNANTZA PUBLIKOA ETA AUTOGOBERNUA	539	77
OGASUNA ETA EKONOMIA	43	76
HOBETUZ	1	0
IHOBE	1	1
IVAP	0	5
IZENPE	0	4
LANBIDE	0	63
LEHENDAKARITZA	0	1
INGURUMENA, LURRALDE PLANG. ETA ETXEBIZITZA	868	1.253
KONTRATU BALIABIDEEN ADMINISTRAZIO-ORGANOAK	0	1
OSAKIDETZA	15	11
OSALAN	0	12
OSASUNA	209	55
SEGURTASUNA	2	15
SPRI	32	11
LANA ETA JUSTIZIA	75	95
TURISMOA, MERKATARITZA ETA KONTSUMOA	2	9
WISESA	7	60
GUZTIRA	3.599	4.232

Kontsulta motaren arabera xehaturik

KONTSULTA MOTA	2018
Mailegua	4.952
Kontsultak	2.705
Erreprodukzioa	129
Behin betiko baztertzea	45
GUZTIRA	7.831


Kontsulten kopurua, 2011-2018 bitartean



Irispen-sistemaren arabera xehaturik:

KONTSULTA MOTA	AKS-TIK KANPOKO KONTSULTAK	AKS-KO KONTSULTAK
Mailegua	1.108	3.841
Kontsulta	2.321	387
Erreprodukzioa	125	4
Behin betiko baztertea	45	0
GUZTIRA	3.599	4.232


Kontsultak: irispen-sistemaren arabera 2011-2018 bitartean



Erabiltzaileen eta irispen-sistemaren arabera xehaturik

ERABILTZAILE MOTA	AKS-TIK KANPOKO KONTSULTAK	AKS-KO KONTSULTAK	GUZTIRA
ADMINISTRAZIOA	1.646	4.175	5.821
HERRITARRAK/IKERKETAK	1.953	57	2.010

Erabiltzaile motaren arabera kontsultak, 2011-2018 bitartean



Lurraldeetako artxiboetan egindako kontsultak

Gipuzkoa

Lurralde Artxiboan, Donostiako Andia kaleko 13. zenbakiko eraikinean, **49** mailegu egin dira, eta Etxebizitza Ordezkaritzari dagozkio.

Bizkaia

Lurralde Artxiboan, Bilboko Kale Nagusiko 85. zenbakiko eraikinean, **260** kontsulta egin dira: haietako **163** Hezkuntza Ordezkaritzari dagozkio; eta **97**, Lan Ordezkaritzari.

3.6. BARNE-KUDEAKETAKO JARDUERAK

ERREPROGRAFIA

Erreprografia-zerbitzua.

Artxibo Nagusiak agiriak erreproduzitzeko zerbitzua eskaintzen jarraitzen du, eta agiri horiek paperean nahiz euskarri digitalean eskuratu daitezke. 2018an, 1.643 euro fakturatu zaizkie ikertzaileei eta herritarrei.

BESTE JARDUERA BATZUK

Ikertzaileen erregistroa

2012. urtean sortu zen. Guztira 782 erabiltzaile erregistratu dira. 2018an 76 ikertzaile berrik eman dute izena.

Agiriak txertatzea

2018an, **1.400** espedientetan gehitu dira agiriak.

Andia kaleko Lurralde Artxiboan **3.653** agiri txertatu dira.

3.7. ARTXIBO NAGUSIKO INFORMATIKA-BALIABIDEAK

ARTXIBOA KUDEATZEKO SISTEMA (AKS/SGA) - S54B

XML fitxeroen kargatzea

Erregistroak kargatzeko programa horren bidez (jada gordailututa dauden edo transferitzeke dauden erregistroak), artxibatze-sisteman **136.074** erregistro irauli dira aplikazioan 2018. urtean, eta **37.173** kutxetan zeuden.

AKS aplikazioaren ezarpena

Sailkapen-koadroa garatzeko eta beste sail batzuetan aplikazioa abian jartzeko prozesuan aurrera egin da. Gaur egun, sail guztietan egiten dira AKSen bidezko artxiiboak, bai eta honako erakunde autonomo, zuzenbide pribatuko erakunde publiko eta sozietate publiko hauetan ere: ELANKIDETZAN, URA-URAREN EUSKAL AGENTZIAN, VISESAN, ALOKABIDEN, IHOBE, OSAKIDETZAN ETA SPRIN.

Gaur egun, honako hauek deskribatuta daude AKS/SGA sisteman (garbitutako agiriak ere sartuta daude):

- Artxibo Nagusian: **4.747.171** erregistrori dagozkien **542.125** kutxa
- Bulegoko Artxiiboan: **25.973** kutxa, **786.408** erregistrori dagozkienak

Hortaz, Artxibo Nagusian gordailututako kutxen % **64,50** AKS aplikazioan deskribatuta daude (gordailutuko eta garbitutako kutxak dira).

Aplikazioan ezarritako aldaketak

Nabarmentzekoak dira aplikazioan sartutako honako aldaketa hauek:

- DEKPko transferentzia-, espurgatze- eta auditoria-prozeduretako espediente elektronikoak sortzea
- Detektatutako errore eta ezegokitasunak zuzentzea
- Aplikazioarekin probak egitea Windows 10 sisteman
- Dokumentu motaren arabera espurgatze-prozesuak hobetzea
- Dokumentuak mantendu eta kontserbatzeko prozesuak optimizatzea.

AKS sistemaren inguruko prestakuntza

IVAPen bidez antolatutako ikastaroez gainera, aplikazioa erabiltzeko banakako prestakuntza ematen zaie hala eskatzen duten langile guztiei. Teknikariak arduratzen dira esleituta dituzten arlo funtzionalei prestakuntza emateaz.

ARTXIBO NAGUSIKO LINEAN KONTSULTATZEKO KATALOGO PUBLIKOA (OPAC) – S54A

OPACaren garapena

2018an, OPACa garatzeko behar ziren aldaketak egiten jarraitu da. Horien artean honako hauek nabarmentzen dira:

- OPACari ahalbidetzea 50 urtetik beherako antzintasuna duten dokumentuak kargatzeko.
- Aplikazioaren interfaze grafikoa aldatzea, erabilgarritasuna eta erabiltzaile-esperientzia hobetzeko, Interneteko aplikazioaren erabiltzaile-profilen artean bereiziz
- Aplikazioaren arkitektura teknologikoa aldatzea, herritarrek artxiboaren funtsetan egiten dituzten bilaketen errendimendua hobetzeko.
- Testu librearen bidezko bilaketen funtzionalitatea hobetzea.
- Egitura organikoen kudeaketa hobetzea.
- Erregistratutako erabiltzaileen kudeaketa hobetzea.

Twitterren kontua aktibatu da

ARTXIBOKO SERIEEN BALORAZIO BATZORDEA – V48B

V48B aplikazioa berrikusten eta hobetzen jarraitu da. Ezarritako aldaketen artean honako hauek nabarmentzen dira:

- Sinadura elektronikoaren prozesuak hobetzea
- Erregistro-liburuarekin integrazteko prozesuak hobetzea.
- Dokumentu motaren arabera kontserbazio-epea esleitzeko funtzionalitatea garatzea.

ULMA-BILTEGIA KUDEATZEKO SISTEMA eta W17B

Instalazio robotizatua kudeatzen duen aplikazioa mantentzen jarraitu da. Egindako lanen artean azpimarratzekoa da harekin probak egin direla Windows 10 sisteman, 2019an migrazioa egiteko.

04/ANTOLAKETA

4.1. DOKUMENTU-FUNTSAK BERRANTOLATZEKO LANAK

HEZKUNTZA FUNTSA

Zientzia Politikaren Atala

Jarraitu da bilerak egiten Zuzendaritzako teknikari eta informatikariekin, Y44 aplikaziotik AKSra elektronikoki izapidetutako espedienteak artxibatzen hasteko eta haien dokumentu-serieak baloratzeko.

Saileko gainerako atalak

Arloko artxibozain arduradunak jarraitu du Sailak sortutako serieak berrikusten, kutxak behar bezala kodetzeko eta horiek progresiboki AKSan kargatzeko. PLATEAk izapidetutako espedienteak AKSan artxibatzeari ekin zaio bulego gehiagotan.

OGASUN FUNTSA

Kontrol Ekonomikoaren Atala

IKUSen ordeztutako EIKA izeneko kontabilitate-aplikazio berriaren arduradunekin bi bilera egin dira, dokumentuen kudeaketaren funtzionamendua azaltzeko eta kontzeptuak argitzeko, artxibo-prozeduren eta -serieen definizioari begira.

Kontratazio Atala

Bilerak egin dira kontratuen inguruko errekursoetarako organoko arduradunekin eta Kontratazio Elektronikorako Plataformako arduradunekin, espedienteak Dokusin eta AKSan sartzea aztertzeko.

INDUSTRIA FUNTSA

Energiaren eta Industria Segurtasunaren Atala

Saileko informatika- eta antolaketa-arduradunekin batera aztertu da zer tratamendu eman ahal zaien B29k kudeatutako eta Dokusi ezarri aurretik izapidetutako dokumentu elektronikoak dituzten espedientei, eta horrelakoak artxibatu ahal izateko konponbidea ere aztertu da.

JUSTIZIA FUNTSA

Justizia Administrazioaren Atala

Doako Justiziaren arduradunekin elkarlanean, haren serieen kontserbazio-egutegiak onartu eta gero, justizia-jauregietan kontserbatzen diren dokumentuak espurgatu egin dira, eta Artxibo Nagusira transferitu dira aldi baterako kontserbatu behar direnak.

Administrazio Erregistroen Atala

Bi kontratu txiki egin dira AByC Servicios Documentales SL eta ODEI SL enprekin, Gipuzkoako eta Arabako elkarteen erregistroetako espedienteak antolatzeko, inbentariatzeko eta Artxibo Nagusian gordailutzeko. Dokumentu horiek, askotariko arrazoiengatik, oraindik transferitu gabe zeuden, eta kasu gehienetan itxita zeuden.

Hona lanaren emaitza: Arabako 465 kaxa bete espediente eta Gipuzkoako 1.229 kaxa bete espediente.

INGURUMEN FUNTSA

Ingurumenaren Kalitatearen Atala

Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzak izapidetutako prozedurak eta zerbitzuak berrikusteko eta egokitzeko prozesuan, INGURUNET aplikazioan izapidetze elektronikoa ezartzeari begira, Sailarekin batera lan egin da zerbitzuak definitzen eta serieak sortzen, bai eta ondoriozko dokumentazioa berrantolatzen ere.

Biodibertsitatearen Kontserbazioaren Atala

Harremanak izan dira Urdaibaiko Patronatuaren bulegoarekin, haren dokumentazioa antolatzeko, Artxibo Nagusian gordailutzearen.

lhobe azpifuntsa

IHOBEtik etorritako dokumentuak kanpoko zaintza-enpresa batean zeuden. Enpresa horretatik Artxibo Nagusira eraman dira eta antolatu egin dira. AByC Servicios Documentales enpresa arduratu da dokumentuen tratamenduaz eta dokumentu-serieen identifikazioaz.

OSASUN FUNTSA

Osakidetza azpifuntsa

Bilboko Amatasun Funtsari buruzko 4 kontsulta egin dira guztira.

Historia klinikoen espedienteen inbentarioa egiten hasi da, aurkibide-fitxekin egindako datu-basearekin erkatzeko, hainbat eta hainbat hutsune detektatu baitira.

ETXE BIZITZA FUNTSA

VIRESA azpifuntsa

Sozietate publikoak kudeatzen dituen barneko eta kanpoko prozedura eta zerbitzuen identifikazioa 2018an amaitu da, horiei guztiei alta emateko zerbitzuen katalogoan eta Dokusiko fitxategi maisuetan.

Amaitutako espedienteetan landu gabe zeuden dokumentuen tratamendua burutu da.

LAN FUNTSA

LANBIDE azpifuntsa

Bilerak egiten jarraitu da Lanbideko artxibozainarekin eta bulego ekoizleekin, digitalizatuko diren prozedurak aztertzeke, bai eta sailkapen-taulan falta diren eta gordailutzeke dokumentazioa daukaten prozedurak ere.

Diru-sarrerak bermatzeko errentari buruz tokiko bulegoetan dagoen dokumentazioa digitalizatzeko proiektuarekin jarraitu da 2018an, kudeaketa-aplikazioan kargatzeko eta, ondoren, Artxibo Nagusira transferitzeko. ODEI eta GUREAK enpresek egiten dute lan hori. 2018an, **9.853** kutxa transferitu dira, hau da, guztira **368.162** espediente eta **1.130.003** dokumentu elektroniko.

Sorburuan ziurtatutako digitalizazioa ezartzen hasi da 2018an zenbait bulegotan, eta 2019an zehar bulego guztietan hasiko da funtzionatzen. Horrenbestez, ez da prozedura horretako paperezko dokumenturik gehiago sartuko.

HIRIGINTZA FUNTSA

Lurzoruaen Kudeaketaren Atala

25 dokumentu-serie sortu dira, eta horien arabera sailkatu dira dokumentuak.

Emaitza gisa, 2.151 kutxatako dokumentuak birsailkatu dira eta guztira 10.447 erregistro kargatu dira AKSan (Artxibo Nagusian hurrenez hurreneko hainbat transferentzian gordailututako dokumentuak dira).

LEHENDAKARIORETZAREN FUNTSA

Gobernu Idazkaritzaren Atala

Bilerak egin dira teknikariek eta EJIekin, aplikazioak aldatzeko, izapidetzen dituzten prozeduretako dokumentuak AKSan artxiba ditzaten.

Araubide Juridikoaren Atala

Prozedurak eta haien dokumentu-tipologia aztertu ondoren, kodeak esleitu dira, prozedura judizialak kudeatzen dituen aplikazioa espediente elektronikoak sortzen has dadin.

4.2. DOKUMENTU-KUDEAKETAREN ANTOLAKETA

DOKUMENTUAK KUDEATZEKO EREDUA - Dokusi

EJIErekin, Informatika eta Telekomunikazio Zuzendaritzarekin (DIT) eta Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzarekin (DACIMA) batera lan egiten jarraitu da Dokumentuak Kudeatzeko Ereduaren garapenean. Ereduari **Dokusi** deitzen zaio.

2013ko irailetik Artxibo Nagusia arduratzen da Dokusiren dokumentu-tipologiaren, fitxategi maisuen eta Dokusiren Batzorde Teknikoaren idazkaritzaren mantentze-lanez.

Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzarekin batera lan egin dugu Dokusiren fitxategi maisuetan zehaztutako prozedurak eta zerbitzuen katalogoan zehaztutako prozedurak zein zerbitzuak bat etor daitezen, bai eta PLATEA erabiltzaileei ematen zaien prestakuntza ere, espediente elektronikoak artxibatzen jakin dezaten. Modu aktiboan parte hartu da DACIMAK ezarritako digitalizazio eredu berrian. Dagoeneko elektronikoki izapidetzen diren zehapen-prozedurei dagozkien zerbitzu guztiak aztertu dira.

Jarduketa-protokoloa aldatu egin da, eta eztabaidatu beharreko arazo orokorrak daudenean edo prozeduraren batek analisi zehatza eskatzen duenean bakarrik egiten dira Batzordearen bilerak. Hala, urte horretan 5 bilera baino ez dira egin, baina guztira 313 dokumentu-serieri esleitu zaizkie kodeak.

DOKUSIREN OKUPAZIOARI BURUZKO TXOSTENA

Artxibo Nagusiak Dokusiren okupazio-mailari buruzko hiru hilean behingo txostena egin du. Datuen azterketan ateratako ondorioei esker, zuzendu edo hobetu behar diren zenbait elementu detektatu dira euren dokumentuak hemen gordetzen dituzten informazio-sistemetan.

2018an zehar eboluzio hau izan da Dokusiren memoria okupatua eta dokumentu kopuruaren hazkundean:

Data	2018/01/01	2018/03/31	2018/06/30	2018/09/30	2018/12/31
Dokumentuak, guztira	18.140.147	19.077.973	20.906.170	21.931.988	23.646.889
Memoria, guztira	6,176 TB	6,69 TB	7,40 TB	7,83TB	8,57TB

DOKUMENTU ELEKTRONIKOAK KUDEATZEKO POLITIKAN EZARRITAKO AUDITORIETARAKO APLIKAZIOA

EJIErekin sinatutako mandatuaren barruan, DEKPak ezarritako auditoria-prozesurako datuak biltzea ahalbidetuko duen aplikazioaren lehenengo bertsioa osatu da. Aplikazio horrek, dokumentu elektronikoak sortzen dituzten informazio-sistemetarako, ebidentziak biltzen ditu DEKPan definitutako prozesuetako bakoitzean, hiru inguruneetan: erregistroan, izapidetzean eta artxiboan; hau da, dokumentuen bizi ziklo osoan.

4.3. DOKUMENTAZIOAREN BALORAZIORAKO, AUKERAKETARAKO ETA DOKUMENTAZIORA JOTZEKO BATZORDEA (COVASAD)

Lekualdatze-lehiaketa dela eta, COVASADeko kide berriak izendatu dira.

COVASADek aztertu beharreko serieen balorazio-proposamenak eta identifikazio-fitxak bizkorrago egiteko, laguntza teknikoa jaso da apiriletik irailera bitartean. Scanbit SL enpresak hartu du adjudikazioa.

Bi bilera egin dira, bata urriaren 4an eta bestea abenduaren 18an, eta guztira 57 serie baloratu dira, JUSTIZIAREN, HEZKUNTZAREN, LANAREN, LANBIDEREN eta ADMINISTRAZIO PUBLIKOAREN funtsetakoak.

2017ko apirilaren 17an, EHAAk argitaratu zen Gobernantza Publikoko eta Autogobernuko sailburuaren 2018ko martxoaren 26ko Agindua, Dokumentazioaren Baloraziorako, Aukeraketarako eta Dokumentaziora jotzeko Batzordeak (COVASAD) adostutako Garraioen, Justiziaren, Etxebizitzaren, Barne Sailaren eta Hezkuntzaren funtsen kontserbazio-egutegiak onartzeko. 2017an aztertutako serieei buruzkoa da.

05/ Kanpo-harremanak eta prestakuntza

BISITAK ARTXIBO NAGUSIRA (GAMARRAKO ERAIKINA)

Artxiboen Nazioarteko Egunaren ospakizuna zela eta, ekainaren 8an bisitaldi gidatuak antolatu ziren Gamarrako eraikinean, euskaraz nahiz gaztelaniaz. Guztira, 26 pertsona hurbildu ziren.

BILERAK, OGASUN ETA ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAKO MINISTERIOAREKIN

Ogasun eta Administrazio Publikoetako Ministerioak Arloko Batzordearen dokumentu, espediente eta artxibo elektronikoen lantaldean antolatzen dituen bileretan parte hartzen jarraitu dugu. Zerbitzuko arduradunak parte hartzen du EAEn aldetik.

Bilera bat egin da bideokonferentzia bidez, eta aurkeztutako agiriak bide elektronikotik eztabaidatu dira.

BESTE ERAKUNDE BATZUETAKO TEKNIKARIEKIKO BILERAK

2018ko maiatzaren 10ean, Artxibo Deskribapenerako Espainiako Araua (NEDA) prestatzen ari den batzordeak Gasteizen egin zuen urteko bilera, eta Artxibo Nagusia ikusteko eskatu zuten. Bilera Gamarrako instalazioetan egin zen. Instalazio hori ikusteko bisita bat eskaini zitzaion, eta ondoren EAEko Administrazio Publikoak ezarritako dokumentu-kudeaketako sistemaren berri azaldu zitzaion, arreta berezia jarritz dokumentu elektronikoen tratamenduari. Hamar pertsona bertaratu ziren.

Joaquim Llansó Nafarroako Gobernuaren Agiritegiko buruak eskaturik, 2018ko urriaren 11n Nafarroako Agiritegian eztabaida-jardunaldi bat egin zen, Nafarroan artxiboei buruzko arau berri bat egitea komeni den aztertzeke. Eusko Jaurlaritza jardunaldi horretara gonbidatu zuten, EAEn lantzen ari den legearen eskema azal zezan. Honako hauek aritu ziren eskema hori azaltzen: Fernando Uriondo, Baliabide Orokorren zuzendaria; Borja Aguinagalde, Euskadiko Artxibo Historikoaren arduraduna; eta Iruñe Zumalde, Agiritegi, Liburutegi eta Argitalpen Zerbitzuaren arduraduna.

Jardunaldi berean Artxibo Nagusiari eskatu zitzaion hitzaldia emateko Eusko Jaurlaritzan ezarritako dokumentu-kudeaketako sistemari buruz, Artxibo Nagusiak zuzentzen baitu sistema hori. Iruñe Zumaldek egin zuen hitzaldi hori.

DOKUMENTAZIOA BALIOESTEKO ETA AUKERATZEKO BATZORDEA (COVASED)

Zerbitzuaren arduradunak COVASEDen bileretako batean parte hartu zuen, Bilbon, 2018ko urtarrilaren 22an. Bertan balioetsi ziren COVASADek azaroko bileran egin zituen proposamenak, besteak beste.

HAUTAKETA-PROZESUAK

Artxiboaren arloko arduradunaren lanpostua hutsik geratu dela eta, zerbitzu-eginkizuna ezarri da, eta hiru pertsona aurkeztu dira. Hautaketa-prozesuaren ondoren, Artxiboaren arloko teknikari María José Alfarok hartu du lanpostua.

Zerbitzuaren arduradunak, bestalde, hautaketa-prozesu batean parte hartu du, zerbitzu-eginkizunen prozeduraren bitartez Arabako Foru Aldundiko Agiritegi Zerbitzuko buruaren lanpostua betetzeko azaroan eta abenduan.

EMANDAKO IRAKASKUNTZA

IVAPen prestakuntza-jardueren eskaintzaren barruan “Artxiboak kudeatzeko tailerra” izeneko lau ikastaro eman dira artxibo-sistemari buruz, dokumentuen kudeaketa digitalari buruz eta dokumentu elektronikoen tratamenduari buruz. Hizlariak Gloria Barceló, María José Alfaro, Miren Torres eta Mari Carmen de la Hoz izan ziren. Ikastaro teoriko-praktikoa izan da, deialdi bakoitzean 15 ordukoa, eta guztira 44 pertsonak parte hartu dute.

2018ko ekainaren 7an, Artxiboaren arloko arduradun María José Alfarok eta EJIeko laguntzaile tekniko Gloria Barcelok ikastaro bat eman zuten Bilbon, AKS aplikazioaren erabilerari buruz. Bideokonferentzia bidez URAko eta IHOBeko 35 pertsonak parte hartu zuten.

JASOTAKO IRAKASKUNTZA

Arloko bi pertsonak Euskadiko Artxiboen 2018ko Bileran parte hartu zuten, Bilbon, 2018ko irailaren 28an, ALDEEK antolatuta. Gardentasuna, datuak eskuratzea eta datuen babesa izan ziren aztergai.

LANKIDETZA, KULTURA SAILAREKIN

Jaurlaritzaren legegintza-planean Dokumentuen Kudeaketa Integralari eta Artxiboei buruzko Legea egin eta onartuko zela ezarri zen, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren eta Kultura eta Hizkuntza Politikako Sailaren arteko ekimen bateratu gisa.

Prozesu horretan hainbat bilera egin ditu lantaldeak, testu adostu bat lantzeko, Ramón Cruz Mundet irakasleak aurkeztutako zirriborroan oinarrituta.

Testua alegazio-prozesuan sartu zen 2018ko irailean, eta azken txostenen zain dago, Legebiltzarrera igortzeko.

LANKIDETZA, JUSTIZIA ADMINISTRATIOAREKIN

Bergarako artxiboetan zenbait dokumentu historiko lapurtu zirela eta, prozedura judizial bat hasi zen, eta auzitegiak Artxibo Nagusiari agindu zion konfiskatutako dokumentazioa gordetzeko.

Auzi horren barruan, zaintzapeko dokumentu guztiak titularrei emateko agindu du epaile magistratuak, eta horrela amaiera eman zaio gordailutze judizialari.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

GOBERNANTZA PUBLIKO
ETA AUTOGOBERNU SAILA

DEPARTAMENTO DE GOBERNANZA
PÚBLICA Y AUTOGOBIERNO

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2019